

TORRETA

Kontserbatu den Ermuko eraikuntzarik zaharrena dugu hau: Dorre itxura duen jauregi bat, XVI.mendekoa.

KOKALEKUA:

Herriaren kanpo aldean irudikatu behar dugu eraikin hau, harresietatik kanpo, XVI.mendeko Ermuren errebaletan. Bizkaitik Gipuzkoara zetorren bidearen ertzean egongo zen, mendebaldetik herrirako sarbidean estrategikoki kokatuta.

FUNTZIOA:

Pentsa liteke bere funtzioa defentsiboa zela, bere dorretxe itxura dela eta, eta bere kokapen estrategikoa ikusita, baina zenbait teoriak luxuzko etxebizitza bat zela defendatzen dute, ez zuela funtzio defentsiborik. Hemen dago teoria horren esplikazioa: XV.mende osoan zehar, Bandoen Gerraren testuinguruan,



Euskal Herriko familia nobleak elkarren aurka borrokan ibili ziren botereagatik, erregea eta hiribilduak boterea hartzen ari ziren une batean. Gerra egoera honek dorretxeen beharra azaleratu zuen: Nobleziaren familiak babesteko gotorlekuak. Gotorleku hauek ezaugarri defentsibo argiak izango zituzten: Altuak, konpaktuak eta harrizkoak izango ziren, lehenengo pisura sarrera ere zaila izango zelarik, bertan egongo baitziren familiaren logelak. Leihoak estuak izango ziren, eta saietara edo gezi-leihoak ere izango zituzten.

XVI.menderako, dorretxeek jada ez zuten funtzio hau beteko: jauntxoek arteko borroka amaituta egongo ziren, bake garaia izango zen, eta dorretxe gehienak boteak izango ziren 1457an, Gaztelako Enrique IV. Erregearen aginduz.

Orduan, nondik aterako dira Euskal Herrian ditugun dorretxeak, haien artean Ermun dugun hau? Tipologiaren atalean saiatuko gara hau argitzen.

TIPOLOGIA:

Torretaren funtzioaren inguruan edozein zalantza argitzeko, Gonzalez Cembellinen (2004) analisi tipologikora joko dugu. Klasifikazio honetan, Torreta "Jauregi Mediterraneo Apaisanatu" bezala klasifikatzen du autore honek, Bizkaiko beste zenbait eraikinekin batera (Lariz, Ubilla, Zubileta, Lekue...).

Eraikin hauek Italiatik ekarritako Jauregi Toskandarraren eredupean eginda daude, konkretuki, Medici de Michelozzarren Jauregian oinarrituta. XV. mendean egingo ziren itxura honetako jauregiak Italian, eta XVI. mendean iritsiko ziren Bizkaiara, Gaztelatik. Ikusten joango garen moduan, Jauregi hauek zituzten ezaugarriak aztertuko ditugun jauregien berdinak dira.

Ezaugarri hauetako bat kokalekua da: Jauregi hauek bide komertzial garrantzitsuen ondoan kokatuta egongo ziren; Torretaren kasuan adibidez, Durangotik zetorren Errege Bidearen ondoan. Eraikin bakoitzaren orientazioa ere bide komertzialak baldintzatuko zuen, Torretaren kasuan iparraldera begira kokatuz.

Ezaugarrietako beste bat beren altura motza izango zen, eraikin guzti hauek nahiko baxuak izango baitziren. Beraien oina kuadrangularra izango zen, eta luzea baino zabalagoa. Torretaren kasuan esaterako, 13 metroko zabalera izango du, eta 7 metroko luzera. Altueran berriz, 8,5 metro eskas izango ditu. Guztira, 253 metro karratu izango ditu. Esan beharra dago hasiera batean ez zela horren zabala izango, are konpaktuagoa izanez, gerora zati bat gehituko zitzaiolarik, argi ikusiko den moduan argazki zaharretan, bakarrik erabilitako harrian ikusten den ezberdintasunagatik. Hala ere, gehitu zitzaion leihoa beste bien oso antzekoa da, eta horregatik uste da estalita geratu zen aldameneko leihoa berrerabiliko zutela. Zalantzak daude hirugarren pisuaren inguruan, ea jatorrizko eraikuntzarekin batera egingo zen, antzinako adreiluz eginga baitzen, ala gerora gehitu zitzaion, eta beraz, jatorrizko eraikuntza txikiagoa zen. Pareten lodiera eskasa ezaugarrietako beste bat da. Lehen aipatu dudan moduan, eraikin hauek ez ziren oso altuak izango, eta pareten lodiera altueraren arabera izaten da (zenbat eta altuagoa, lodiagoa izan behar da, eraikinak pisuari eutsi ahal izateko). Torretaren kasuan, hormak 0,87 metroko lodiera izango zuten, eta kalizazkoak izango ziren, harlandua erabiliz fatxada nagusian eta harlangaitza gainerakoetan, tipologia bereko Jauregi guztietan egiten den moduan. Harlangaitza erabiliko zuten baita ere barruko estrukturan, kostuak merkatzeko.

Eraikin hauek beraien jatorrizko ereduarekiko ezarriko duten ezberdintasun nagusia barneko atari falta zen. Izan ere, Euskal Herrian, hezetasuna dela eta, barruko atariak eraikitzea ez zen batere ohikoa, hezetasunari sarrera errazten baitzion. Horregatik, oso eraikuntza konpaktuetara jotzen zen.

Jauregi guzti hauek oso apaindura gutxi izango zituzten, eta zituztenean, XVI. mendeko estilistika izango zuten hauek (harlanduzko dintelak leihoetan, erdi puntuko arkuak...).

ERAIKUNTZAREN KANPOKO ANALISIA:

Eraikinaren analisia gaur egun geratzen dena eta kronikek eta planoek erakusten digutenaren arteko alderaketa bat eginez burutuko dugu. Horretarako, esan beharra dago gaur egun dugun eraikina 90eko hamarkadan burutu zen eraberritze lanen ondorio dela, eraikin originalaren oso ezberdina den bat izan zutenak fruitu (gauza gutxi kontserbatuko zituzten ziren bezalakoak, oinarria, leihoen itxura lehenengo pisuan, arkuak...kenduta).

Estrukturarekin hasiz, hiru pisuko eraikina da, jatorrian izango zen moduan, non beheko bi pisu eta teilatu azpi batez osatua egongo zen, azken hau adreiluzkoa izanik. Leihoen kokapena eta tamaina mantenduko zen baita ere, eta atena gaur egungoaren berdina zen. Lehenengo pisuko leihoak zabalak zirela ikus dezakegu, eta beheko ateak erdi puntuko arku itxura zuela (XVI. mendeko ezaugarri izanez hau). Arkuak "IHS" inskripzioa izango du, "Jesus, gizonen salbatzaile" esanahia daukana, bere latinezko laburpenean. Ohikoak izango ziren horrelako inskripzioak garaiko etxe nobleetan. Ate hau ukuilurako sarrera izango zen, gero ikusiko dugun moduan.

Gaur egun ikusten dugun aldameneko eskailera edo patina garaian ere existituko zen, oso ezberdina izango bazen ere gaur egun daukagunarekiko: Mendiko aldapa aprobetxatuz egongo zen eraikia, eta estalita egongo zen. Estilistikoki Errege Katolikoek korrontekoak ziren zutabeek eutsiko zuten eskaileraren estalpea, eta horrek berriro adierazten digu bere kronologia: XVI. mendea. Eskailera mota hau, askotan defentsiboa bezala definitua, luxuzko elementuak izango ziren berez, ukuilutik pasa gabe geletara igotzeko erabiliko zutena. Gainera, analizatzen hasi ezkeror erraz ikusiko dugu nola eskailerak erraztu egiten zuen pisura sartu ahal izatea, eta berriz atetik defendatzea zaildu.

Teilatua zeramikazko adreiluz egina egongo zen, eta bi aldekoa izango zen. Eraikuntza handietan askotan erabiliko zen bi aldeko teilatua, landan gutxitan emango bazen ere. Etxearen eraikuntza burutu ahal izateko, terrazatan banatu behar izan zuten lehen bizi lursaila.

BARRUALDEAREN ANALISIA:

Barrualdearekin hasiz, beheko solairuko leiho txikiek barruan zegoenari buruzko informazioa ematen digute: Ukuiluak izango ziren. Hasiera batean gela bakar bat izango zen, animaliak bertan izateko, beharbada pisua eramateko animaliak, produktuak garraiatu ahal izateko beraien bidez. Eraikuntza amaitu eta handik 70 bat urtera beste zati bat erantsi zitzaionean eraikinari, zabalagoa bihurtuz, ukuiluari gela bat gehiago gehitu zitzaion. Ez dakigu zertarako erabiliko zuten gela berria, baina ziur aski lanerako tresneria gordetzeko edo ukuilu bezala baita ere. Edozein eratara ere ez zen bizilekua izango. Deigarria da ukuiluak horren sarrera elegantea izatea. Hau, eredutzat hartu zuten eraikinean, hau da, Toskanako Jauregietan, sarrera honek

barruko atari batera eramango zuelako izango zen. Hemen berriz, barruko atariak kendu, baina atearen itxurari eutsiko zioten, eta horregatik, horrelako paradoxak emango ziren: animaliek pertsonak baino sarrera eleganteagoa izango zuten, zeinak patinetik, oraindik ohore elementu bat zena Euskal Herrian, sartuko ziren.

Lehenengo pisuak leiho zabalak izan zituen: Bertan egongo ziren logelak, sukaldea eta egongela. Azken hau zati publikoenean egongo zen, eta logelak eta sukaldea berriz pribatuenean. Logelak ez ziren asko izango, bat edo bi bakarrik, eta beraien artean ez zen harrizko paretarik egongo: egurrezko estruktura bat izango zuten, igeltsuz estalia. Hala ere, zati bat gehitutakoan osatuko zen gela ziur aski etxeko nagusiaren logela izango zen.

Sukaldea oso basikoa izango zen: apalen batzuk, armairuren bat, eta su baxu bat, ziur aski tximiniarik gabe, izango zituen bakarrik. Izan ere, garaian, jauregirik luxuzkoenak bakarrik izango zuten tximinia). Su baxuek eragindako kea goiko pisuko egurrezko taulen artean galtzen zen, askotan txorizo eta urdaiazpikoak jarritz bertan lehortzen, kea aprobetxatuz.

Azkeneko pisuak, teilatu azpiak, bere sarrera propioa izango zuen, eskailerarik ez duen eraikinaren aldetik. Bere leiho txiki eta irregularrak aztertuz, almazan moduan erabiliko zutela uste dugu. Leiho txiki eta gezi leihoak aireztatzeko funtzioa izango zuten, ez zuten funtzio defentsiborik izango.

Azpimarragarria da ez dirudiela zerbitzaririk egongo zenik, teilatu azpiko leihoak horren handiak izanda, ez dugularik uste bertan lo egingo zutenik, eta etxearen gainerakoan ez baitago lekurik beraiek bertan bizi ahal izateko. Ziur aski zerbitzariak etxe horretatik kanpo biziko ziren, eta etxea alokairuan jarritakoan, bertan bizi ez zen zerbitzari izango zuen administrazioaren ardura.

JABEAK:

Argitzeko geratzen zaigun azken puntua jabeak nortzuk ziren da. Zein izango zen eraikin honen eraikitzailea? Ez dugu lortu jakitea zein zen bere jatorrizko jabea, edo ea XVI. mendean eraiki zen, ala aurreko dorretxe bat eraberritu zuten. Zentzu gehien daukan teoria XVI. mendean eraiki zela da, izan ere, ez dugu Bando Gerran parte hartzen ari zen Ermuko inongo familia garrantzitsuren berririk, edo ez behintzat modu autonomo batean, (Ermukoak Zaldibarkoei lotuta baitzeuden). Beraz, beraien garrantzia ez zen dorretxe bat izateko adinakoa izango.

Beraz, gure ondorioa familia aberats batekoak izango zirela jabeak da; ziur aski merkatariak, bere kokalekuagatik, Bizkaitik herrira sartzen den bidearen ondoan, merkatal bidearen ondoan kokatuko zuena, eta denen ikusmiran.

Teoria hau defendatuko duen beste elementu bat “IHS” anagrama da: Jesus-i erreferentzia egiten dio, eta etxearen babeserako egiten den aipamen bat da, beste ezer baino gehiago. Bando Gerrako parte hartzaileek mehatxuzko esaldiak jarriko zituzten beren inskripzioetan, ez IHS moduko anagramak.

“Torreta” izena 1789an agertzen da lehen aldiz dokumentazioan, urte gutxiren buruan, 1814an, berriro agertzen bada ere, “Torre de Loseta” moduan oraingoan.

Ziurtasunez dakiguna 1704rako Santa Margaritako monjena (ziur aski aurreko jabeak oinordekotzan utzita) izango zela eraikina da, nahiz eta inor ez zen bertan bizi. Eta badakigu XIX. mende erdialdera arte beraiena izaten jarraituko zuela, Madoz edo Mendizabalen desamortizazioetan galduko zuten arte. Edonola dela ere, 1845erako jauregia ez zen beraiena izango.

Hemendik aurrera pista galtzen diegu jabeei, 1904an “Maria Gallastegi, Torretakua” aipatzen bada ere dokumentuetan. Kontutan izan behar da hala ere Ermuan beste lau dorre egongo zirela garaian, eta beraz, beste dorreren batekoa izan zitekeela emakume hau.

1953ra iristen gara ala, Torreta “baserri” bezala agertzen hasten denean dokumentazioan. Jakina da honen ondoren “Gazte lekua” izango zela denbora batez, Ermuko Zentro Kulturala bihurtu arte 1994an, udaletxeak bere azkeneko jabeei erosi zienean: Galindez Landaburu anaiak.

EGUNGO EGOERA:

Eraberritzea baino gutxi lehenago sute bat eman zen eraikinean, asko hondatu zuena. Honek asko zaildu zuen aurrekoa kontserbatzen zuen eraberritzea. Ermuko Tailer-Eskolak burutu zituen eraberritze lanak, hasiera batean jatorrizko harriak kontserbatzen saiatuz, horretarako harriak etiketatu, eraikuntza harriz harri desegin eta berriro eraikitzeko. Azkenean ezinezkoa izan zen, harlandua desegin egiten baitzen behin harria bere lekutik kendutakoan. Hau dela eta, itxura mantendu baina materiala aldatzea erabaki zen, harriak kanpotik ekarri, harria oraindik ere kaliza bada ere. Jatorrizko eraikuntza bota egin zen, eta gaur egungoaren barruko estruktura hormigoizkoa da.

BIBLIOGRAFIA:

- Aranberri, F. (2001) *“Ermua- Eitzaga Leku-Izenak. Geure izanaren barrena”*. Bilbao: Euskaltzaindia.
- Azkarate, A; García Gómez I. (2004) *“Las casas-torre bajomedievales. Análisis sistémico de un proceso de reestructuración espacial/territorial”*. Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitatea/Universidad del País Vasco.
- González Cembellín (2004) *“Torres de las Encartaciones”* Bilbao: Diputación Foral de Bizkaia.
- Kerexeta, J. (1992) *“Fogueraciones de Bizkaia del siglo XVIII”* Bilbao: Instituto Labayru.
- Pinedo, J.A (1996) *“Ermua, Mallabia eta Zaldibar. Bizkaiko Herrien Monografiak”*. Bilbao: Diputación Foral de Bizkaia.

KOLABORATZAILEAK:

- Ricardo Carro
- Juan Manuel González Cembellín
- Estibaliz González
- Hector Izaguirre

EGILEA:

Maddalen Zabaleta